

20 segundu (20")



Ez dugu berdin jokatzeko leku guztietan. Espazio batzuek isilik egotera behartzen gaituzte, beste batzuek berriz, oihu egitera edo mugitzera. *Nork esaten digu nola jokatu? Horrelakorik gertatzen al da eskolako espazioetan? Ba al dago eraldatu nahi genukeen zerbait?*

Eskolako espazioetara hurbilduko gara, gure ohiturak eta jokatzeko moduak birpentsatu eta paisaia horiek eraldatuko dituzten esku-hartze artistikoak burutzeko.

Helburuak

- Maite Redondoren obra eta sormen/ikerketaren prozesuetara hurbiltzea.
- Espazio publiko eta pribatuei buruz hausnartzea, espazioaren izaerak haren erabileran duen eraginari buruz hausnartzea eta paisaia eraldatzen duten esku-hartze artistikoak gauzatzea.
- Mugikorrek eskeintzen dituen ikus-entzunezko aukerekin lan egitea.

Aipamenak

2 km (Maite Redondo) <https://vimeo.com/165368047>

Calle sin nombre (Maite Redondo) <https://vimeo.com/97014760>

Intervención artística, (Colegio Nacional La Plata) <https://www.nacio.unlp.edu.ar/2017/06/intervencion-artistica-en-el-colegio/>

Jolastu, jolastu eta jolastu (Tabakalera, Eskola aldiriak) <https://vimeo.com/331026768>

Intervención artística (Donostiako Udala) <https://www.diariovasco.com/san-sebastian/bolardos-personalidad-20180812082049-nt.html>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

- Irakasleak guretzat ezagunak diren espazio batzuen irudiak (publikoak eta pribatuak) proiektatu dituzte. Adib: ikasgela bat, kale bat, logela bat, museo bateko gela...
- *Zein espazio da? Norena da? Nola jokatu genduz leku horretan? Zer elementu eragiten dute horrela jokatzeko?* Horretarako, gutako ikasle bat proiektuaren aurrean jarriko da eta leku horri dagokion gorpuzkera, jarrera eta ekintzak irudikatuko ditu.
- Espazioak gure portaera nola baldintzatzen duen hausnartuko dugu. *Ezagutzen al ditugu era desberdinean jokatzeko gonbidatzen gaituzten beste espazio batzuk?*

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bikoteka. Eskola edo inguruneko paisaia/espazio bat aukeratu dugu.
2. Mugikorrekin, espazio horretan 20 segundu grabatu ditugu, plano finkoan.
3. Ondoren, grabazioak ikasgelan partekatuko ditugu. Eta 3 galdera hauei erantzun diegu: *Zer gertatzen da? Zer ez da gertatzen? Zer gerta liteke?*
4. Jarraian, paisaia hori edo bertan gertatzen dena eraldatzeko esku-hartze erraz eta iragankor batean pentsatuko dugu. Adibidez, ekintza bat egitea, ez ohiko elementu bat bertan kokatzea...
5. Pentsaturiko esku-hartzeak burutuko ditugu (guztia edo aukeraturiko batzuk).
6. Ondoren, espazio hortan bertan 20 segunduz grabatu dugu esku-hartzearen ondorioz gertatzen dena jasotzeko.
7. Grabaketak ikasgelan partekatuko ditugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

- *Eztabaidatu: Zer gertatu da esku-hartzearen ondoren? Zer neurritan dugu gure ingurunea eta paisaia eraldatzeko gaitasuna? Nork esaten du nola jokatu behar dugun eta nola?*
- *Iraunkortasun Plan bat diseinatu: Esku-hartze horren iraunkortasunaren inguruan hausnartuko dugu. Iraunkorra edo iragankorra al da? Behin betikoa izatea nahi dugu? Zer egin behar dugu horretarako?*